

Ordizian, bi mila eta zortziko urriaren 16an UDALBATZARRAK OHIKO BILERA egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

J. Miguel Santamaría Ezeiza jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Alejandra Iturrioz Unzueta.	EAJ	taldea
Jon Txurruka Etxezarreta	EAJ	taldea
Miren Auzmendi Urkiola	EAJ	taldea
Iban Asenjo Garde	EA	taldea
Belén Maiza Urrestarazu	EA	taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jn.	PSE-EE(PSOE)	taldea
Monica Marañon Basarte	PSE-EE (PSOE)	taldea
Jose J.Lopez Fernandez	PSE-EE (PSOE)	taldea
Maialen Galparsoro Odriozola	EB-Berdeak/Aralar	taldea
Mikel Leunda Senperena	EB-Berdeak/Aralar	taldea

BERTAN EZ DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Iñigo Manrique Cía	PP	taldea
--------------------	----	--------

Behin-behineko IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea.

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi jn.

INTERPRETARIA:

Garbiñe Mendizabal Mendizabal.



BERTARATZEAK ETA IRTEERAK

Miren Auzmendi 10.puntuari joan da bileratik.

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

- 1.- 2008ko uztailearen 29ko bilkurako akta onartu.
..... 4.orr
- 2.- 2008ko irailaren 18an egindako aparteko bilkurako akta onartu.
..... 5.orr
- 3.- 2009rako Ordenantza Fiskalen aldaketari hasierako onarpena.
..... 6.orr
- 4.- 2008ko aurrekontuan Kreditu-transferentzien 6.espedientea onartu.
..... 8.orr
- 5.- Eraikuntza, Obra eta Instalazioen gaineko Zergaren hobaria Oiangureneko obrenatik.
.....10.orr
- 6.- 2009ko ekitaldirako taxi-tarifen hobariak.
.....12.orr
- 7.- Lorezaintzako peoiaren jarduera pribatuaren bateragarritasuna.
.....13.orr
- 8.- Plangintzako Aholku Batzordearen Araudiaren hasierako onarpena.
.....15.orr
- 9.- Euskara ikasteko diru laguntzak emateko oinarriak behin behinean onartu.
.....18.orr
- 10.- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren arautegia behin behinean onartu.
.....20.orr

AZKEN ORDUAN SARTUTAKO GAIAK:

- .- Garapenerako Lankidetzaren Programaren Araudia onartzea.
..... orr.22

GORABEHERAK

- .- 5 minutuko etena 3.puntuari.



GALDE-ERREGUAK

- IKENGUri obren gaineko zergan hobaria egiteari buruz, publikoaren iritzia.
- Osoko Bilkurak egiteko bileren ordutegiari buruz galdetu da publikotik.
- Oiangurengo proiektuari buruzko kontsulta publikoa.

..... pág.24

ORDUTEGIA:

HASIERA: 8,05 etan

AMAIERA: 9,45etan



Lehendakari jaunak hasiera eman dio bilkurari, gai-zerrendako lehen puntuaren berri emanez:

1.- 2008ko uztailaren 29ko bilkurako akta onartu.

Proposamena

2008ko uztailaren 29ko ohiko bileraren akta zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Leunda jauna

Leunda jaunak esan du berak esandakoa ondo islatuta dagoela 3.puntuan, baina ez horrela Alejandra Iturriozek esandakoa, ez dela jaso.

Aldi berean galdetu du ea ze ekarpen egiten dion Udalak haurtzaindegiari.

Iturrioz andreak 3000 € zirela erantzun zion, eta Kontu-hartzaileak kopuru hori zuzendu egin zion, 30.000 € zirela esanez.

Bestetan bezala, Leunda jaunak esan zuen udal haurtzaindegia Partzuergoan sartu behar izan zuela, eta hori egin ez zuenez, eta erabaki horrek ekar ditzakeen eta dakartzan ondorioak ikusita, udal ekarpena handitzen joatea, haurtzaindegiak berak aurre egin beharreko arazoa izan beharko lukeela.

Idazkariak jaso du egin beharreko zuzenketa.

Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 9 (EAJ 4, EA 2, PSE-EE/PSOE 2,EB-Berdeak/Aralar 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 2 Marañon eta Galparsoro andreak abstenitu egin dira, bilkura horretara etorri ez zirelako.



Beraz Alkate jaunak aurkeztutako akta onartutzat jo du.



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien bigarren puntuaren berri eman du:

2.- 2008ko irailaren 18an egindako aparteko bilkurako akta onartu.

Proposamena

2008ko irailaren 18ko aparteko bileraren akta zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Eguneko aztergaien euskarazko bertsioan, gaizki dago Osoko Bilkurako aktaren data. Irailaren 28aren ordez, irailaren 18a da.

Zuzendu egin da.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 11 (EAJ 4, EA 2, EB-Berdeak/Aralar 2, PSE-EE/PSOE 3)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak aurkeztutako akta onartutzat jo du.



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien hirugarren puntuaren berri eman du:



3.- 2009rako Ordenantza Fiskalen aldaketari hasierako onarpena.

Proposamena

Alkate jaunak aurkeztu du 2009rako udal tasa eta zergei buruzko proposamena. Gaiaz eztabaidatu eta gero, 2008ko urriaren 8an egindako Plenorako Gaien Batzordeak honako hau erabakitzea proposatu zuen, beti ere 1171989 Foru Arauak (*) ezarritakoa betetzen aldera

AKORDIO PROIEKTUA

1.- Honako hau onartu behin behingo izaerarekin 2009ko ekitaldian aplikatzeko.

A) 1. ORDENANTZA FISKALAREN ERANSKINA ALDATZEA, ONDASUN HIGIENZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZENDUENA.

B) 2.ORDENANTZA FISKALAREN ERANSKINA ALDATZEA, UDALERRIKO JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA.

C) 3.ORDENANTZA FISKALAREN ERANSKINA ALDATZEA, TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA.

D) 4. ORDENANTZA FISKALAREN ERANSKINA ALDATZEA, ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA.

E) 5. ORDENANZA FISKALAREN ERANSKINA ALDATZEA, HIRI-LURREK IRAABAZITAKO BALIOAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZENDUENA

F) 6.ORDENANTZA FISKALAREN ERANSKINA ALDATZEA, ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINTZEAGATIK ETA ADMINISTRAZIO EKINTZAK EGITEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUENA.

2.- Akordioa 30 egunez jendaurrean ipintzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki oholean, interesatuek alegazioak eta iradokizunak egin ditzaten. Erreklamaziorik egon ezean, akordioa behin betiko onartutzat emango da, akordio berririk hartzen aritu gabe.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:



Txurruka jna.

2008koarekiko orokorrean KPI-ko igoera aurreikusi dela azaldu du labor labor, zerga eta tasa jakin batzuetan izan ezik, hala nola, ura eta zaborrena, horiek %8an igotzea proposatzen baita.

Aldi berean, azaldu du, EB /Aralar-ek aurkeztutako proposamena onartu dela esan du, %50eko hobaria zergaren kopuru osoan 3 seme-alabako Familia Ugari diren subjektu pasiboen alde, eta %75ekoa 3 seme-alaba baino gehiagoko familiei, etxearen katastro-balioaren 150.000 €ko topearekin.

Aldi berean, Txurruka jaunak esan du feria berezietan saltokiekin bide publikoa okupatzeagatiko tasa, KPIa + %1a dela.

Leunda jna.

Bere taldeak aurkeztutako gainerako emendakinak kontuan ez hartzeko arrazoen gainean galdetu du.

Alkate jna.

Honako hau erantzun dio:

- Bizi Gune programako etxebizitzetarako Ondasun Higiezinetan %25eko hobaria, beraien ustez, bigarren etxebizitza da eta programa horrengatik beragatik baditu garantia batzuk.
- Eguzki-energia ekoizteko egokitutako etxebizitzetan Ondasun higiezinetan hobaria, bere ustez badute hobaria obra, eraikuntza eta instalazioetako zergan.
- Eraikuntza, Instalazio eta Obretan %50a, etxeak ezgaituen beharretara egokitzegatik, bere ustez programa zehatzak dauden horiek diruz laguntzen dituztenak.
- Eraikuntza, Instalazio eta Obretan %50a, eguzki-energiaren ekoizpenera egokitzeko obretan, aplikagarri ez den araudiagatik beharrezko ez diren obretan hobaria aplikatzen da, dagoeneko, %75a.
- Familia ugarien etxeak dituzten beharretara egokitzeko obretan Eraikuntza, instalazio eta obretan %25a, bere ustez oso zaila izango litzateke horiek helburu horretarako diren baloratzea.
- Etxebizitza hutsen eta okupatutakoen zabor-tasak parekatzeari buruz, ez du batere zentzurik, horiek ez dutelako zaborrik sortzen.

Leunda jna.

5 minutuko etena eskatu du emandako arrazoiak aztertzeko.

5 minutuak pasatu direnean, Leunda jaunak esan du oraingoan behintzat bere taldeak proposatutakoak aztertu direla eta denbora eskaini zaiela, eta horrengatik bere taldearen botoa aldekoa izango dela.

Idazkariak andreak esan du euskarazko testuan 15, 16, 17 eta 18 orduak falta direla. Zuzenduko da.



Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 11 (EAJ 4, PSE-EE/PSOE 3, EA 2, EB-Berdeak/Aralar 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du aipatutako aldaketekin.



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien laugarren berri eman du:

4.- 2008ko aurrekontuan Kreditu-transferentzien 6.espedientea onartu.

Proposamena

Udaleko lanpostuen diagnosia, antolaketarako hobekuntza-plana, deskribapena eta balorazio egitea komeni dela erabaki du Tokiko Gobernu Batzordeak (gaur egun deskribapen eta balorazioa 1995ekoa da).

Lau enpresei eskatu zaie hainbat eskaintza, eta lan horiek ATTEST Consulting enpresari ematea erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzordeak 2008ko irailaren 30ean, guztira 37.939 euro gehi BEZ.

Gastu horretarako aurrekontu-krediturik ez dago, eta premiazko betebeharra da esleipena legezkoa izan dadin.

Bestalde, 431.452.20.01 partidan 258.443,00 euro daude, eta gehiena eskuragarri, gainera. Izan ere, Majori Kiroldegia SM BEZaren itzulketatik etorritako sarrerekin finantzatu da.

Espedienteak aldeko oniritzia jaso du urriaren 8an egindako Plenorako Gaien Batzordean.

PROPOSAMENA

Onartu kreditu-transferentzien 6. espedientea, 431.452.20.01 partidatik (Majori Kiroldegia SMri ekarpena) 44.009,24 euro transferitzea 227.111.00.07 partidara (Gobernu-organoetako txosten eta lan teknikoak).

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.



Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Kontu-hartzailea

Hasiera batean lana eta horiei dagozkien kopuruak bi fasetan zatitzearen aurka azaldu bazen ere, gaia sakonago aztertu eta horri buruzko kontsulta egin eta gero, zatiketa hori egokia dela uste du.

Beraz, proposamena zentzu horretan aldatzeari ekin zaio, eta honela geratuko da idatzita:

Proposamena

Udaleko lanpostuen diagnostia, antolaketarako hobekuntza-plana, deskribapena eta balorazio egitea komeni dela erabaki du Tokiko Gobernu Batzordeak (gaur egun deskribapen eta balorazioa 1995ekoa da).

4 enpresei eskatu zaie hainbat eskaintza, eta lan horiek ATTEST Consulting enpresari ematea erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzordeak 2008ko irailaren 30ean, guztira 44.009,24.-€ euro gehi BEZ.

Lanak bi fase ditu, bata diagnostia eta antolaketa hobetzeko ekintza-plana egiteko, 2008ko azaroa eta abenduan egingo litzatekeena, eta guztira 14.023,24.-€koa. Eta bigarren fasean, lanpostuen deskribapena eta balorazioa egiteko, 2009ko urtarriletik apirilera bitarte, eta guztira 29.986.-€.

Gastu horretarako aurrekontu-krediturik ez dago, eta premiazko betebeharra da esleipena legezkoa izan dadin.

Bestalde, 431.452.20.01 partidaren 258.443,00 euro daude, eta gehiena eskuragarri, gainera. Izan ere, Majori Kiroldetia SM BEZaren itzulketatik etorritako sarrerekin finantzatu da.

Espedienteak aldeko oniritzia jaso du urriaren 8an egindako Plenorako Gaiaren Batzordean.

AKORDIO PROIEKTUA

- **Onartu kreditu-transferentzien 6. espedientea, 431.452.20.01 partidatik (Majori Kiroldetia SMri ekarpena) 14.023,24.-€ euro transferitzea 227.111.00.07 partidara (Gobernu-organoetako txosten eta lan teknikoak).**
- **2009rako kreditu-konpromisoa onartu, guztira, 29.986 €.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.



Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 9 (EAJ 4, PSE-EE/PSOE 3, EA 2,)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 2 (EB-Berdeak/Aralar)

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien bosgarren berri eman du:

5.- Eraikuntza, Obra eta Instalazioen gaineko Zergaren hobaria Oiangureneko obrenetatik.

Proposamena

Eraikin, Obra eta Instalazioen Zerga Arautzen duen Ordenantzaren berri ematen da. Ordenantza horren 8.1 artikuluan ezartzen duenaren arabera, interes berezikoak diren edo udal erabilerarako interesgarritzat jotzen diren eraikin, instalazio eta obrei zergaren kuotan %95eko hobaria emango zaie, beti ere izendapen hori arrazoitzeko behar adina ezaugarri sozial, kultural, historiko-artistiko eta enplegu-sustapeneakoak baleude.

Inkengu 05 SMk Oianguren Parkean eta bere lur-sailetan egiten ari diren obretako zergaren kuotarako hobaria eskatu du, horren ustiapenaren esleipen-hartzaile baita aipatutako enpresa.

2008ko urriaren 8ko Plenorako Gaien Batzordeak aldeko irizpena eman dio eskatutako hobari horri, honako ezaugarri hauek dituelako:

- Udalak udal intereseko bezala jotzen du proiektua, eskualdeko eskaintza turistikoari balio garrantzitsua ematen diolako (ostatua, jatetxea, aire libreko kirola egiteko aukera...eta abar).
- Obraren esleipen-hartzaileak egindako inbertsioa Udalera itzultzen da emakidaren epea amaitzen denean, edo epe hori baino lehen, hala balegokio.
- Enplegua sor dezakeelako.

Horiek horrela, honako akordio-proiektu hau onartzea proposatu da.



AKORDIO PROIEKTUA.

- Oiangurenen eta bere lur-sailetan egingo diren obren interes berezia eta udal-erabilpena aitortzea eta, ondorioz, aipatu obrei ematea Eraikin, Obra eta Instalazioen gaineko Zergaren %95eko hobaria.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Alkate jna.

Oiangurengo obren hobariaren zergatiaren berri eman du.

Leunda jna.

Bere taldea erabat aurka dagoela esan du, inola ere ez delako udal intereseko obra eta ez du ulertzen behar handiagoko eta kopuru barregarrietan beste hobari batzuk ukatzea, eta horrelako kopurua ematea Ikenguri (19.700.-€) gaur egun arte egindako obrenengatik.

Alkate jna.

Leunda jaunak udal intereseko esaten duenean, egia dela, berak duen interesa ez dela Alkatearena esan du.

Enplegua sortzen duen sustapen turistikoko obra da, eta udal jabetzako ondasuna, gainera.

Dubreuil jna.

Alkatearekin ados dagoela esan du, udal intereseko obra dela esaten duenean. Enplegua sortzen duela, udal ekipamendua hobetzen duela, kirol berria sartzeko berritzailea da, eskola kirola berrindartzen du, eta abar.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 8 (EAJ 4, PSE-EE/PSOE 3, EA 2.)



Aurkakoak: 2 (EB-Berdeak/Aralar)
Abstentzioak: 0

Dubreuil jaunak ez du botorik eman, interes-gatazka gerta daitekeela beragan (famili-interesa).

Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat aitortu du Lehendakariak.



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien seigarren berri eman du:

6.- 2009ko ekitaldirako taxi-tarifen hobariak.

Proposamena

AGITAX, Gipuzkoako Taxisten Elkarteko presidente Emilio Fernandez Fidalgo jaunak aurkeztutako idatziaren berri eman da. Idatzi horretan, auto-taxien herri barruko 2009ko tarifak berrikustea eskatzen du, ondoren zehazten den eran:

2009ko HERRI BARRUKO TARIFAK					
1* TARIFA			2** TARIFA		
Abiasaria	Egindako Kilometroak	Itxaron ordua	Abiasaria	Egindako kilometroak	Itxaron ordua
3,0841	0,9655	18,4414	3,0841	1,5398	28,9839

* Lanegunetan, 07:00etatik 22:00ak arte.

** Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00etatik 7:00ak arte. Bai igande eta araudi autonomika eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 07:00tik 22:00 arte bai larunbatetan..

AGITAXek tarifen igoera justifikatuz prestatu duen txostena ekonomikoa ikurik

Herri barruko gaurko dauden tarifak, 2007ko azaroaren 29an Udalbatzarrak onartuak hauek dira:

2008ko HERRI BARRUKO TARIFAK					
1* TARIFA			2** TARIFA		
Abiasaria	Egindako Kilometroak	Itxaron ordua	Abiasaria	Egindako kilometroak	Itxaron ordua
2,94	0,9204	17,58	2,94	1,4679	27,63



* Lanegunetan, 07:00etatik 21:00ak arte.

** Tarifa hau egunero ezarriko da 21:00etatik 7:00ak arte. Bai igande eta araudi autonomika eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 07:00tik 21:00 arte bai larunbatetan..

Gauzak hala, Plenorako Gaien Batzordeak honako hau proposatzea erabaki du:

AKORDIO PROIEKTUA.

1.- Onartzea 2009ko auto-taxien tarifa aldatzea, espezio-atalean esandakoaren arabera.

2.- Erabaki hau Goiekiri jakinaraztea.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira: ez dira izan.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 11 (EAJ 4, EA 2, PSE-EE/PSOE 3, EB-Berdeak/Aralar 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.



Ondoren, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du .

7.- Lorezaintzako peoiaren jarduera pribatuaren bateragarritasuna.

Proposamena

Udal honetako behin-behineko funtzionario gisa Lorazain Peoi lanpostua betetzen ari den Guillermo Garmendia Sagastumeren eskaeraren berri ematen da, bertan lan pribatua egiteko bateragarritasuna onartzea eskatzen du, bitartekoentzat Lorazain gisa lanak betetzeko hain zuzen ere.



2008ko irailaren 23an Idazkariak egindako txosten juridikoa ikusita eta Herri-Administrazioetako Langileen Bateriaezintasunen abenduaren 26ko 53/84 Legearen 11tik 15 bitarteko artikulua ikusita, herri-langileek lan pribatuak egiteko arautzen dutena, segidako erabakia onartzeko proposatzen da

AKORDIO PROIEKTUA

Onartu udal honetako behin-behineko funtzionario gisa Lorazain Peoi lanpostua betetzen duen Guillermo Garmendia Sagastume langileak bere lan pribatuak egiteko bateragarritasuna.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Alkate jna.

Garmendia Sagastume lorezain peoia eta behin-behineko funtzionario jaunaren eskaeraren berri eman du Alkateak, toki-administrazioa lan jarduerara pribatukoarekin bat egiteko.

Leunda jna.

Plenorako gaien batzordean jarduerara hori bateratzea erabaki zela esan du, beti ere legez egiten badu eta autonomoetan alta ematea eskatuz.

Beraz, hona hemen nola geratzen den proposamena:

Proposamena

Guillermo Garmendia Sagastumek, udaletxeko lorezaintzako peoiak aurkeztutako eskaeraren berri ematen da, jardun pribaturako bateragarritasuna aitortzeko eskatuz.

2008ko irailaren 23ko idazkariaren txosten juridikoa dela eta, eta abenduaren 26ko 53/84 Legeko 11-15 artikuluen arabera, Toki Administrazioetako Langileen bateragarritasuna arautzen duenak toki administrazioetako langileen ekintza pribatuan jarduteko.

AKORDIO PROIEKTUA.

Guillermo Garmendia Sagastume, lorezaintzako peoiaren jarduerara pribatuaren bateragarritasuna aitortu, beti ere Autonomoen langileen Errejimen berezian alta emanez gero eta hala agertzen badu Udalaren aurrean.



Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 11 (EAJ 4, EA 2, PSE-EE/PSOE 3, EB-Berdeak/Aralar 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Ondoren, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du .

8.- Plangintzako Aholku Batzordearen Araudiaren hasierako onarpena.

Proposamena

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak (2006ko ekainaren 30ekoa), bere printzipioen artean elkar-hartze sozialaren, herritarren parte-hartzearen eta informazio publikoaren printzipioak biltzen ditu. Halaber, Plan Orokorrek behin betiko onartzeko berezko eskumena duten udalerriei Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordea –eztabaidarako eta aholkuak emateko tokiko organo gisa– eratzeko betebeharra ezarri die. Batzorde horrek hirigintza planak gizartean itundu daitezten ahalbidetzea izango du helburu. Aholku batzorde horrek tokiko entitateari hirigintza antolamendurako oinarritzko tresnak egin eta onartzen laguntzea du xede; eta, zehatzago, Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko zehaztapenei lotuta.

Aipatutako legeko 110. artikulua, bestalde, Aholku Batzordearen oinarritzko ezaugarrien eratzea eta zehaztea helarazten ditu udal bakoitzak egin, izapidetu eta onartu behar duen araudia onartzera.

Araudi honen bitartez, Aholku Batzordearen oinarritzko egitura, eginkizunak eta araubide juridikoa ere zehaztu dira, kide anitzeko organo dela aintzat hartuz, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko (30/1992 Legea, 1992ko azaroaren 26koa) 22.2. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22. 2 d) artikulua arabera, Udaleko Osoko Bilkurari dagokio ordenantzak eta erregelamenduak onartzea.



Legearen 49. artikulua dioenari jarraiki, udal erregelamenduen onespena honako prozedura honi atxikiko zaio:

- a) Osoko Bilkuraren hasierako onespena.
- b) Erregelamendua jendaurrean jarri eta interesatuta daudenei erreklamazio eta iradokizunak aurkezteko gutxienez 30 eguneko tarte eman.
- c) Epe horren barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunak ebatzi eta Osoko Bilkuran erregelamendua behin-betiko onetsi.

Erreklamazio eta iradokizunak aurkeztuko ez balitz, ordura arte behin-behinekoa izan den onespena behin-betiko bihurtuko da.

Hori dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko (2006ko ekainaren 30ekoa) 110. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, eta 2008ko urriaren 8ko Plenurako Gaien Batzordearen onspenarekin, honako hau proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

1.- Ordiziako Udal Planeamenduko Aholku Batzordearen Erregelamenduaren behin-behineko onspena.

2.- Erregelamendu hori jendaurrera jarri beharko da 30 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta iragarki-taulan, eta interesatuta daudenek aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunei tarte eman, horiek guztiak Korporazioak ebatziko dituelarik. Erreklamaziorik ez balego, erregelamendua behin betiko onartutzat joko litzateke, beste erabakiren beharrik gabe.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Alkate jna.

Esan du ekainaren 3ko 105/2008 dekretuarekin, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen garapenean presazko neurriak ezartzen dituen, Plangintzarako Aholku Batzordea sortu eta parte hartzea beharrezko dela, ez bakarrik plangintza orokorra egin eta ikuskatzeko bakarrik, baita plangintza horren aldaketa puntuala egiteko ere.

Beraz, batzorde hori sortu eta martxan jartzeko Araudia egitea dagokio.



Galparsoro anderea

Legezko betebeharrak bat betetzeko oden eta borondaterik ba ote dagoen galdetzen du.

Alkate jna.

Erantzun dion, benetan, betebeharrak ez balitz ez litzaiokeela sortzeari ekingo, baina ez Ordizia, ezta beste udalerritan ere.

Leunda jna.

Proposatutako Ordenantzarekin ados da orokorrean. Hain proposamen garrantzitsuak aztertzeko, ordea, denbora gehiago beharko litzateke eta gai bakarreko foroa, agian.

Hala ere, EHAKrekin ados dagoela esan du, Kontseiluan ez duela ordezkariarik indar politiko horrek, ezta Udalean ere, baina bai herri mailan.

Osoko Bilkurako kide batzuk partiduak legez kanpo uztearen aurka daudela esan du, eta ilegalizazio horren ondorioa da EHAK-k ordezkariarik ez izatea.

Maiza anderea

Legaltasaun "interes" arabera erabiltzen dela erantzun du. Ordezkariarik ez badute eta ordezkariak egotea nahi badute, modu asko dagoela esan du ordezkariak hori izateko, eta behar adina bizkorak direla beraien ideiak burutzeko.

Bozketa

Eztabaida mahaietan amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 9 (EAJ 4, EA 2, PSE-EE/PSOE 3,)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 2 (EB-Berdeak/Aralar 2)

Beraz Alkate jaunak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.



Ondoren, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du .



9.- Euskara ikasteko diru laguntzak emateko oinarriak behin behinean onartu.

Proposamena

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak, 7/1985, apirilaren 2koak, 25. artikuluan dio udalerriek herritarren beharrak eta helburuak asetzen laguntzeko, beraien eskumenekoak diren gaietan, era guztietako aktibitateak eta zerbitzu publikoak eskaini ditzaketela.

Lege horren 28. artikulua dio udalerriek beste administrazioen eskumenekiko osagarriak diren aktibitateak egin ditzaketela, batez ere hezkuntza eta kultura arloetan.

Herritarren beharrak eta helburuak asetzeko udalerriek modu ezberdinak dituzte, horietako bat diru laguntzen bidez egiten den sustapen jarduera izanik.

Herri administrazioek ematen dituzten diru laguntzen araubide juridikoa azaroaren 17ko 38/2003 Diru Laguntzen Lege Orokorra ezartzen du.

Lege horren 17.2 artikulua dio udalerriek diru laguntzak emateko oinarriak ordenantza bidez onartuko dituztela.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22. 2 d) artikulua arabera, Udaleko Osoko Bilkurari dagokio ordenantzak onartzea.

Legearen 49. artikulua dioenari jarraiki, udal Ordenantzen onespena honako prozedura honi atxikiko zaio:

- a) Osoko Bilkuraren hasierako onespena.
- b) Ordenantza jendaurrean jarri eta interesatuta daudenei erreklamazio eta iradokizunak aurkezteko gutxienez 30 eguneko tartea eman.
- c) Epe horren barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunak ebatzi eta Osoko Bilkuran Ordenantza behin-betiko onetsi.

Erreklamazio eta iradokizunak aurkeztuko ez balitz, ordura arte behin-behinekoa izan den onespena behin-betiko bihurtuko da.

Hori horrela, honako hau proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

1.- 2008-2009 ikasturtean euskara ikasteko diru laguntzak emateko oinarrien behin-behingo onespena.



2.- Oinarri horiek jendaurrera jarri beharko dira 30 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta iragarki-taulan, eta interesatuta daudenek aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunei tartea eman, horiek guztiak Korporazioak ebatziko dituelarik. Erreklamaziorik ez balego, oinarriak behin betiko onartutzat joko litzateke, beste erabakiren beharrik gabe.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Maiza anderea

Leunda jaunak iradokizun batzuk egin zituela esan du, eta Euskara sailak aztertu dituela, eta kontuan hartu dela erroldatuta egoteko urtebeteko antzinasuna kentzekoa.

Maiza andereak uste du ordenantza eskuzabala dela, ez murriztailea, bete herritako ordenantzekin parekatzen badugu, behintzat.

Leunda jna.

Iradokizuna onartzea eskertzen du, erroldako antzinasuna ezabatzea, alegia.

Uste du Administrazioa batzuetan kontraesanean erortzen dela, langileei euskara-derrigortasuna eskatzen dielako, eta euskara sustatzen edo sustatzen duela esaten duela, baina gero hizkuntza ikasteko ordaindu egin behar dela.

Euskara ikastea doanekoa izan beharko lukeela uste du Leunda jaunak. Ez du uste beste hizkuntza bat bezala denik.

Normalizaziora iristeko esfortzu ekonomiko handia egin behar dela uste du.

Bekaren portzentajea igo behar da, doakotasunera iristeko. Bere taldeak egiten duen eskaerarekin, txikikeria bat denez, doakotasunera irits daiteke.

laz 4000 € erabili ziren bakarrik bekatan. Bere ustez, gastu hori eta gehiago erabiltzen da euskara-ikasketaren lehentasuna ez duten beste gauza askotan gastatzen da.

Euskara ikasi nahi duenari erraztasunak eman behar zaizkio.



Maiza anderea

Maizaren ustez, doakotasunak ez du euskara ikasteko motibaziorik ekarriko. Udal teknikariek egiaztatu dutenez, dirua ez da arazoa.

Galdetzen dio ea ezagutzen ote duen kasu jakinik, dirurik ez izateagatik euskara ikasi gabe geratu denik.

Lehentasunak ipini behar direla uste du, eta norberak bere poltsikotik zerbait jarri.

Langileei euskara-ezagutza eskatzen zaie, baina beste ikasketa eta prestakuntza osagarri ere eskatzen zaizkie, asko kostatzen direnak eta norberak ordaintzen dituenak.

Doakotasunik ez, ideia mantentzen du, eta berriro esan du, Ordenantzarekin Ordiziak dituen beharrak aseko ez balira, ordenantzak aldatzen lehena izango litzatekeela bera.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 9 (EAJ 4, EA 2, PSE-EE/PSOE 3,)

Aurkakoak: 2 (EB-Berdeak/Aralar 2)

Abstentzioak:

Beraz Alkate jaunak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.



Ondoren, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du .

10.- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren arautegia behin behinean onartu.

Proposamena

2005eko azaroaren 24eko Udalbatzan Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Ordiziako Udalaren arteko hitzarmena onartu zen. Hitzarmen horren bidez, Udalaren esku uzten da beren kabuz baliatzen ez diren pertsonentzako etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kudeaketa.

Aipatutako hitzarmenaren bigarren klausulan, Udalak hitza ematen du Foru Aldundiak I Eranskinean proposatutako Etxez etxeko Laguntzaren Araudia onartuko duela, eta horretaz gain, zerbitzua emateko behar diren baldintza ekonomiko-administratibo eta teknikoen orriak prestatuko dituela.

Araudia ez da oraindik onartua izan.

Gizarte Ongizateko Ordezkaritzak 2008ko urriaren 8an emandako aldeko irizpenarekin eta egun berean Udalbatzarako Gaien Batzordeak emandako aldeko irizpenarekin, honako hau onartzeko proposamena egin da:

AKORDIO PROIEKTUA

- Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuaren Araudia hasieran onartzea, eransten den dokumentuaren arabera.
- Akordioa GAOean eta Iragarki taulan 30 egunez argitaratzea, erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.
- Akordioa behin betikoa dela iriztea eta berririk ez onartzea, alegaziorik aurkezten ez bada.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Dubreuil jna.

2005eko azaroan beren kabuz baliatzen ez diren pertsonentzako etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kudeaketarako Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmenetik zintzilik dagoen gaia dela uste du.

Araudiak zerbitzua ematen duten profesionalentzako hobekuntza dakarrela uste du, baita bertako erabiltzaileentzako ere, zerbitzu hori emateko langilearen lan hori arinduko zaiolako, ordezkapenekin arduratu beharrik ez duelako...eta abar, gainera, langile horiek prestatuta daude.

Gobernu-taldeak erabakitako puntuetako bat da, gainera.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 11 (EAJ 4, EA 2, PSE-EE/PSOE 3, EB-Berdeak/Aralar 2)



Aurkakoak: 0
Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.

Behin puntu horren bozketa egin eta gero, Auzmendi andreak (EAJ/PNV) utzi egin du bilkura.



Jarraian, hurrengo aztergaiaren berri eman da. Urgentziazko bidetik sartu da aztergaien zerrendan.

11.- Garapenerako Lankidetza Programa Arautzeko Arautegia hasieran onartzea

Proposamena

Alkatezaren proposamenaren berri eman da, Udalaren garapenerako lankidetza proiektuak arautu eta antolatuko dituen arautegi berri bat onartzeko.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 22.2 d) artikularen arabera, Udalbatzari dagokio ordenantzak eta tokiko arautegiak onartzea, aipatutako Legeko 49. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera.

Udalbatzarako Gaien Batzordeak 2008ko urriaren 8an emandako aldeko irizpenaren arabera, hau proposatu da:

AKORDIO PROIEKTUA

* Garapenerako Lankidetza Programa Arautzeko Arautegia hasieran onartzea, eransten den testuaren arabera.

* Akordioa 30 egunez jendaurrean ipintzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki oholean, interesatuek alegazioak eta iradokizunak egin ditzaten. Erreklamaziorik egon ezean, akordioa behin betiko onartutzat emango da, akordio berririk hartzen aritu gabe.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Alkate jna.

Plenorako gaien batzordean puntu hau mahai gainean geratu zela esan du, baina PSE-EE/PSOE eta EArekin adostuta, plenoak onartzeko ekarri du berriro ere proposamena.

Presazko puntu bezala sartu du eta horretarako arrazoia eman du, Araudiaren tramitazioa luzea dela berez, gehiago luzatzeko. Araudia onartzea presazkotzat jotzen du, eta laguntzak lehenbailehen deitzea. Ezin da gehiago atzeratu. 2007ko aurreikusitako laguntzak 2008ra pasatu ziren, baina 2009an deitu eta esleitu egin behar dira.

Lehenik eta behin, aurkeztutako puntuaren presako izaera bozketapean jarri da.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Erabatekoa.

Bozketa

Alkate jaunak aurkeztutako proposamenaren presazkotasuna bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 8 (EAJ 3, EA 2, PSE-EE/PSOE 3,)

Aurkakoak: 2 (EB-Berdeak/Aralar 2)

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak aurkeztutako proposamenaren presazkotasuna onartutzat jo du.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Alkate jna.

Osoko Bilkura etorri direnen artean banatu den proposamenean aldaketa txiki batzuk daudela esan du, eta Alkateak horien berri eman du.

Laguntzako emateko aurreko sistemarekiko hiru berrikuntzak nabarmendu ditu.

.- 20/30 urte bitarteko gazte ordiziarrei diru laguntzak emateko beraien bidaietan.

.- Eusko Jaurlaritzarekin zuzeneko hitzarmena, neurri handiko proiektuetan lankidetzan aritzeko edo parte hartzeko (anaidetutako herriak).

.- GKEekin hitzarmenak laguntza zabalagorako, 12.000 €tik gorakoak, gaur egun gehienekoak bezala aurreikusten direnak.

Leunda jna.

Esan du, astebetean puntu hau aztertu eta erabaki badutela presaz sartzeko, ez duela ulertzen bere taldeak aurkeztutako mozioa sartzeko nola ez den aztertu.



Bestetik, gaiak hain bizkor erantzuna emateko garrantzi handia duela uste du.

Dubreuil jna.

Gaiak presa duela uste du, beste urtebete ezin dela egon diru laguntzak deitu gabe.

Poztu egin da, gazte boluntarioen atala sartu delako, gazteen artean boluntario-lana sustatzen duelako.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 8 (EAJ 3, EA 2, PSE-EE/PSOE 3,)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 2 (EB-Berdeak/Aralar)

Beraz Alkate jaunak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, hurrengo aztergaiaren berri eman da. Urgentziazko bidetik sartu da aztergaien zerrendan.

11.- Galde-eskaria.

Jendartetik, Patxi Uranga jaunak, "Oiangu Bizirik" plataformaren izenean, Ikendu 05 SMri obren gaineko zergan hobaria egitearen aurka dagoela esan du.

Zergak ordaintzen dituen herritar bezala, berarik dagokion proportzioa hobari hori finantzatzeko ez erabiltzeko zer egin behar duen galdetu du.

Alkateak erantzun dio ezer ere ezin duela egin, Osoko Bilkurak erabakitzen duelako nola eta zertan gastatu behar den udalerrian biltzen den dirua.

Ezinezkoa da herritari bati gastu bat egokia ala ez iruditzen zaionaren arabera ordaintzea bere zergak.

.....

Uranga jaunak, aldi berean, galdetu du ea zergatik egiten diren Osoko Bilkurak goizez.



Alkateak erantzun dio.

.....

Uranga jaunak Udala gonbidatu du datorren urriaren 25ean, igandez, egingo den Oiangurengo proiektuari buruzko kontsultan parte hartzera.

Duberuil jaunak Uranga jaunari galdetu dio eta plataformak deitu duen kontsulta eta ea beraiek jarri dituzten kartelak. Berak ez duela kartelik jarri erantzun dio, baina plataforma ari dela jartzen.

Kartel horiek Udalaren armarri eta Andres Urdanetaren v.Mendeurrenaren logoa daramatzate.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, behin behineko Idazkariak egiaztatzen dut.

